

EBALUAZIO FROGA: LEHEN URRATSA A1

IKASLEAREN IZENA:

DATA:

AHOZKO ULERMENA / ENTZUMENA

1. JARDUERA

Irakasleak ahoz adierazitakoari Egia ala Gezurra den erantzun:

2. JARDUERA

Jaso itzazu irakasleak ahoz emandako datuak (Zenbakiak eta Orduak):

Jasotako datuekin galdera hauei erantzun:

-Zer ordutan irekitzen dute idazkaritza?

- Bostetan*
- Lauretan*
- Bederatzietan*

-Zenbat euro sartu ditu postariak banketxean?

- Mila eta bostehun*
- Mila zortziehun eta hirurogeita hamabi*
- Mila laurehun eta hirurogeita bi*

-Zenbat diru zuen autobus-gidariak kaxan?

- Berrehun eta berrogeita bost euro eta hirurogeita zortzi zentimo*
- Ehun eta laurogeita bost euro eta laurogeita zazpi zentimo*
- Bostehun eta berrogeita bi euro eta berrogeita bost zentimo*

-Zer ordutan iritsi da autobusa geltokira?

- Bost eta erdietan*
- Seiak laurden gutxiagotan*
- Hamarrak eta hogeian*

-Zenbat balio du ikastaroaren matrikulak?

- Hirurehun eta berrogei euro*
- Berrehun eta hirurogei euro*
- Berrehun eta berrogeita hamar euro*

-Zer ordutan sartu da alkatea udaletxean?

- Bostetan*
- Laurak eta laurdenean*
- Bostak laurden gutxiagotan*

3. JARDUERA

Entzun irakasleak egindako deskribapenak, apunteak hartu ondorengo eskemaren laguntzaz eta, azkenik, galderei erantzun:

- **Apunteak hartu zerrenda honen laguntzaz**

Animalia Ornodunak

1.- Arrainak

2.- Anfibioak

3.- Narrastiak

4.- Hegaztiak

5.- Ugaztunak

- **Ondorengo galderei erantzun:**

Zein animalia daude ezkatatz beteak?

- Hegaztiak*
- Anfibioak*
- Arrainak*


Zein dira animalia mokodunak?

- Narrastiak*
- Hegaztiak*
- Ugaztunak*

Anfibioak dira:

- Dortoka eta igela*
- Apoa eta igela*
- Oiloa eta marrazoa*

Osa ezazu testu honen kontzeptu mapa:



AHOZKO ADIERAZPENA / MINTZAMENA

4. JARDUERA

Irakasleak egindako datu pertsonalei buruzko galderei erantzun (dena ahoz)

5. JARDUERA

Lor ezazu informazioa hau irakasleari galderak eginez eta jasotako informazioa ondoan idatzi:

Irakaslearen bizilekua:

Irakasleak seme-alabak dituen. Zenbat:

Irakaslearen zaletasunak:

Ikastetxeko irakasleen kopurua:

6. JARDUERA

Irakasleak egingo dizkizun galderei erantzun:

IDATZIZKO ULERMENA / IRAKURMENA

7. JARDUERA

Ondorengo testua irakurri eta galderei erantzun:

INAUTERIAK ZARAUTZEN

Martxoak 1, larunbata.

TAILERRAK

INAUTERIETAKO MASKARAK ETA MAKILLAJEA.

Teilatupe gaztetxokoan, Gazte-lekuan, 12 urtetik 14ra bitarteko gaztetxoentzat.

LEHIAKETAK

MOZORRO LEHIAKETA. "Zona" Ostalaritza Elkarteak antolatuta.

Banakako eta taldeko mozorro lehiaketa.

1. saria: Play Stationa.
2. saria: DVDA
3. saria: Telebista

Sari berezia: bidaia zoragarria.

(Oinarriak Turismo Bulegoan eta "Zona"ko tabernetan eskuragarri)

BERBENA

Gaueko 11:00etatik 1:30etara:

Musika Plazan, berbena ITOITZ taldearekin.

Testuari buruzko galderei erantzun:

- Zein hiru ekitaldi egingo dira Zarautzen martxoaren 1ean?
- Zer egin behar da telebista lortzeko?
- Nora jo behar dut Lehiaketari buruzko informazio gehiago izateko?
- Noiz arte izango da musika plazan?

8. JARDUERA

Testua irakurri eta ondorengo galderei erantzun:


URA

Izaki bizidun guztiek birsortzeko ura behar dute.

Urari "Naturaren odola" deitu zaio, bizitzarako ezinbesteko elementua delako.

Naturako ur kopurua

Ura Naturan dagoen elementurik ugariena da . Gure Lur Globoaren hiru laurdenak urez estalirik



daude.

Uraren egoerak

Ura hiru era edo egoeratan aurkitzen da:

Likido egoeran: ozeano, laku, aintzira, euri eta ibaetan.

Solido egoeran: mendietako elur iraunkorretan eta polo aldeetako izotzetan.

Gas egoeran: atmosferatan disolbaturiko lurrin gisa eta hodeietan.

Galdera hauei erantzun:

- Zergatik deitzen zaio urari "Naturaren odola"?
- Zein eratan aurki dezakegu ura Lur planetan?
- Non aurki dezakegu ura solido egoeratan?
- Zein da uraren proportzioa Lur planetan?

IDATZIZKO ADIERAZMENA / IDAZMENA

9. JARDUERA

Testua irakurri ondoren, idatz ezazu posta elektronikoko mezu bat iragarkiarri erantzunez:

INSTITUTUKO ALDIZKARIKO TALDEAK

IKASLE BAT BEHAR DU
MAKETAZIO LANETARAKO

KAZETARITZA LANA GOGOKO BADUZU, BIDAL EZAZU MEZU
ELEKTRONIKO BAT HELBIDE HONETARA:

kazetari@euskalnet.net

Idatz ezazu mezu bat zure partaidetza eskainiz:

Nori:

Gaia:

Mezua:

10. JARDUERA

Idatz iezaiozu postal bat zure lehengusu edo lagunari zure etxera gonbidatuz, bide batez deskriba iezaiozu herria eta zure etxea:

<hr/> <hr/> <hr/> <hr/> <hr/> <hr/> <hr/> <hr/> <hr/> <hr/>	<div data-bbox="1219 427 1362 524" style="border: 1px solid black; width: 90px; height: 43px; margin: 0 auto 10px auto;"></div> <hr/> <hr/> <hr/> <hr/>
---	---